

## Agintariak eta Langileria

### Oposaketak eta Lehiaketak

#### OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

2968

ERABAKIA, 2011ko maiatzaren 9koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, entitate publikoaren 2011ko lan-eskaintza publikoa onesten duena.

Administrazio Kontseiluak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutu sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 8.5.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorri zahar da. Ezarritako arauak betez, hau da, ondokoak kontuan hartuta: Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legea, osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen Estatutu Markoari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legea, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 37 artikulua, non negoziazio kolektiboko gaien artean sartzen baitira lan-eskaintza publikoetako irizpide orokorrak.

Osasun sektoreko Mahaiak 2010eko lehenengo seihiilekoan ekin zion lan-eskaintza publiko berri bat onartzeko prozesu negoziatzaileari. Prozesu hori, Osasun sektorearen Mahaiak 2010 eta 2011n egindako bilkuretan garatu da, baina azkenean ez dute inolako akordiorik lortu Administrazioak eta sindikatuek.

Adierazitakoaren arabera, zuzendari nagusiak proposatuta, eta erakunde publikoaren estatutuetako 8.5.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorri, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hauxe erabaki du:

ERABAKIA:

**Lehenengoa.**— Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko estatutupeko langile finko izateko lan-eskaintza publikorako deialdia egitea erabaki da.

Hautaketa-prozesua oposizio-lehiaketa sistemaren bidez egindo da. Hautaketa-prozesua arautu behar duten oinarri orokoretan eta deialdien oinarri espezifikoetan zehaztuko da zer prozedura erabiliko den eta zer baldintza bete beharko diren eskainitako plazak eskuratzeko.

## Autoridades y Personal

### Oposiciones y Concursos

#### DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

2968

ACUERDO de 9 de mayo de 2011, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por el que se aprueba la oferta pública de empleo del ente público para el año 2011.

El Consejo de Administración adopta el presente Acuerdo conforme a la previsión hecha en el artículo 8.5.f) del Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, así como con carácter general, conforme a las normas que en materia de personal perteneciente al Ente Público contempla la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, la Ley 55/2003, de 16 de diciembre, de Estatuto Marco del Personal Estatutario de los servicios de salud y la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público, cuyo artículo 37. 1, apartado 1 incluye entre las materias de negociación colectiva los criterios generales sobre ofertas públicas de empleo.

La Mesa sectorial de Sanidad inició en el primer semestre del año 2010 el proceso negociador para la aprobación de una nueva Oferta Pública de Empleo a desarrollar en el Ente Público, proceso que se ha desarrollado a lo largo de diversas reuniones celebradas durante los años 2010 y 2011 en el seno de la mesa sectorial de sanidad, sin que finalmente se haya alcanzado ningún acuerdo entre la Administración y la representación sindical.

De conformidad con lo expuesto, a propuesta del Director General, y de acuerdo a lo previsto en el artículo 8.5.f) de los Estatutos del Ente Público, el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de Salud adopta el siguiente,

ACUERDO:

**Primero.**— Se acuerda la convocatoria de una Oferta Pública de Empleo en Osakidetza-Servicio vasco de salud para el acceso a la condición de personal estatutario fijo.

El proceso selectivo será por el sistema concurso-oposición. Las bases generales que han de regir el proceso selectivo y las específicas de las correspondientes convocatorias concretarán el procedimiento y los requisitos para el acceso a las plazas ofertadas.

Erabaki honek behar besteko bideragarritasun jurídiko lortu orduko kudeatzen hasiko dira hautaketa-prozesuei hasiera emateko jarduerak. Orduantxe kudeatuko da, baita ere, erabakia garatzeko ematen diren oinarri orokorrak biltzen dituen ebazpena.

**Bigarrena.**— Honakoak dira 2011ko deialdian sartuko diren lanpostuak zehazteko irizpideak:

1.— 2011ko lekualdatze-lehiaketa bukaturik, esleitu gabe geratzen diren postuak, bai eta esleipena jasotakoek hutsik uzten dituztenak ere.

2.— Bitarteko langileek betetzen dituztenak, bai eta administrazio-kontratadunenak ere, baldin eta Euskaldeko Antolamendu Sanitarioari buruzko Legearen hirugarren xedapen iraunkorrean jasota badaude eta finkatzekoak ez badira, dagokion sarbidean aurreikusitakoaren arabera.

3.— Erretiro edo heriotza-bajen ondorioz sisteman hutsik gelditutako lanpostuak, bai eta edozein arraizorengatik 2011ko abenduaren 31ra arte sor litezenak ere.

4.— Gobernu Kontseiluak 2011ko abenduaren 31 arte onetsitako destino berriak.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren deialdieta zehaztuko da zein kategoriari buruzkoa izango den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren 2011rako lan-eskaintza publikorako deialdia.

**Hirugarrena.**— Era berean, eta deialdi honen kudeaketa ahalik eta zabal, garden eta bizkorrena izan dadin, gogoratzeko da barne-sustapeneko txandak edo txanda librea plaza lortzeagatik kategoria aldatu duten langileek edo txanda librea kategoria bereko plaza aldatu dutenek hutsik utzitako lanpostuak behin eta batera erantsiko zaizkiela txanda libreko hautagaiei eskaini beharreko plazei. Bestalde, lanpostua lortu duten hautagaiek lanpostua jabetzan hartu bai baina sektore publikoan zerbitzuak eskaintzen aritzearagatik eszendentzia daudelako edo borondatzezko eszendentzia daudelako lanean benetan hasi ez badira, lanpostu horiek hutsik geldituko dira; baita plazari uko egindako lanpostuak ere. Horiek guztiak behin eta batera gehituko dituzte hautapenean eskainitako plazak, hautapeneko lehenengo fasea bukatu ondoren.

**Laugarrena.**— Irizpide hauen arabera eta erabaki honen datan aurreikusitako lanpostuen kopurua 2.600ekoa da gutxi gorabehera. Eskainitako destinoen behin betiko zerrenda, lanpostu-kopurua zein lanpostuen identifikazioa, hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda, lortu duten puntuazioaren arabera, argitaratu aurretik argitaratu beharko da.

La gestión de las actuaciones para el inicio de los procesos selectivos se iniciará inmediatamente alcance la necesaria virtualidad jurídica el presente Acuerdo, así como la resolución que contenga las bases generales que en desarrollo del mismo se dicten.

**Segundo.**— Los criterios para la determinación de los puestos a incluir en la convocatoria a desarrollar el año 2011 son los siguientes:

1.— Los puestos que no resulten adjudicados, así como los que dejen vacantes los adjudicatarios a la finalización del concurso de traslados convocado para el año 2011.

2.— Los destinos ocupados por personal interino y contratado administrativo incluido en la disposición transitoria tercera de la Ley de Ordenación Sanitaria de Euskadi que no sean objeto de consolidación según lo previsto en la modalidad de acceso específica.

3.— Las plazas vacantes como consecuencia de las bajas vegetativas, así como las vacantes que por cualquier causa puedan generarse hasta el 31 de diciembre de 2011.

4.— Los destinos de nueva creación aprobados por el Consejo de Gobierno hasta el 31 de diciembre de 2011.

La determinación de las categorías objeto de convocatoria de la Oferta Pública de Empleo de Osakidetza-Servicio vasco de salud para el año 2011 se realizará mediante la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de las correspondientes convocatorias.

**Tercero.**— Así mismo, y con la finalidad de dar la mayor amplitud, transparencia y celeridad a la gestión de la presente convocatoria, se acuerda que las vacantes que se generen con ocasión del cambio de categoría por el personal que acceda a la correspondiente plaza en el turno de promoción interna o en el turno libre, o de cambio de plaza de la misma categoría en el turno libre, incrementarán por una sola vez a la totalidad de las plazas a ofrecer a los aspirantes en el turno libre. Por otro lado, las vacantes que se generen como consecuencia de la no efectiva incorporación tras la toma de posesión por parte de los aspirantes que las hayan obtenido y resulten en situación, respecto de las mismas, de excedencia por prestar servicios en el sector público o voluntaria, así como, las renuncias incrementarán por una sola vez a las plazas objeto de selección, una vez agotada la primera fase de elección.

**Cuarto.**— El número de puestos previsto, conforme a estos criterios, a la fecha del presente Acuerdo asciende a la cantidad total aproximada de 2.600. La relación definitiva de destinos ofertados, tanto el número como su identificación, se publicará junto con la publicación de la relación de aspirantes que han superado el proceso selectivo por orden de puntuación.

**Bosgarrena.**— Lan-eskaintza publiko hau lehiaketa-oposizio sistemaren bidez gauzatuko da. 100 puntu emango zaizkio oposizio-aldiari eta 80 lehiaketa-aldiari, oinarri orokorretan eta deialdi bakoitzean ezarritakoarekin bat etorriz eta Euskararen erabilera Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak ezarritakoa betez. Edonola ere, gutxienez 50 puntu lortu beharko dira oposizio-aldian. Prozesu honen ondoriozko jarduera guztietan publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren printzipio orokorrak aplikatuko dira, ahalik eta gardentasunik handienarekin.

**Seigarrena.**— Osakidetzako langileen garapen profesionala ahalbidetzeo eta indarrean dagoen legeria-rekin bat etorriz, barne-sustapeneko txanda bat ezarri da, langile finkoek lanbide-kategoria eta espezialitatea aldatzeko aukera izan dezaten.

**Zazpigarrena.**— Bestalde, barne-sustapenean nahiz txanda libreen, deialdi honetan ateratak lanpostuen ehuneko bost ehuneko 33ko edo hortik gorako urritasuna duen jendeak betetzeko gordeko da. Lanpostu horiek betetzeko, hautaproba gainditu beharko dira eta adierazitako urritasun-maila eta dagozkion lan eta zereginak egiteko bateraezintasunik ez izatea egiaztatu beharko da. Aipatutako kopurua deialdiko lanbide-kategoria bakoitzean aplikatuko da. Eskainitako kategoriako lanpostuak hogei baino gutxiago badira, gordetako portzentajearen kopurua lanbide-talde oso kontuan hartuta doituko da. Desgaitasuna dutenentzat erreserbatutako plazak, barne-sustapen bidez bete ezean, txanda libreko desgaitasuna dutenentzat erre-serbatutako kupoari erantsiko zaizkio.

**Zortzigarrena.**— Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legeko hirugarren xedapen iragankorra aplikatuko zaie Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea indarrean jarri zenean bitarteko funtzionarioak edo administrazio-kontratudunak ziren langileei, lege horrek adierazitako moduan, eta baita Auzitegi Gorenak 2005eko apirilaren 16an emandako 888/2002 Epaia aplikatu behar zaien langileei ere, hau da, lege hori indarrean jarri zenean edozein lan-harreman motarekin eta deialdi honetara arte etenik gabe lanpostuan jarraitu duten langileei.

Oposizio-aldia ginditzen ez duten langileek betako lanpostuak, Antolamendu Sanitarioaren Legeko hirugarren xedapen iragankorrak aurreikusitakoaren arabera, sarrera-molde horretarako ezarritako araubidea aplikatuta, hutsik geldituko dira, eta esleitu beharreko behin betiko zerrendan eskainiko dira. Beraz, hautagaiek aukera ditzaketen plazak gehitu egingo

**Quinto.**— La presente Oferta Pública de Empleo se desarrollará con arreglo al sistema de concurso oposición, correspondiendo 100 puntos a la fase de oposición y 80 a la fase de concurso, con arreglo a lo dispuesto en las bases generales y en las respectivas convocatorias, cumpliendo lo establecido en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza. En todo caso, en la fase de oposición será preciso alcanzar un mínimo de 50 puntos para considerar superada la citada fase. Todas las actuaciones derivadas de este proceso se someterán a los principios generales de publicidad, igualdad, mérito y capacidad, con la máxima transparencia.

**Sexto.**— Con el fin de posibilitar el desarrollo profesional de los trabajadores y trabajadoras de Osakidetza, se establece, de acuerdo con la normativa en vigor, un turno de Promoción Interna del personal fijo para el cambio de categoría profesional, y especialidad.

**Séptimo.**— Así mismo se reserva un cupo del 5 por 100 de los puestos convocados, tanto en el turno de promoción interna como en el turno libre, para ser cubiertos entre personas con discapacidad de grado igual o superior al 33 por 100, siempre que superen las pruebas selectivas y que acrediten el indicado grado de discapacidad y la compatibilidad con el desempeño de las tareas y funciones correspondientes. La selección del cupo señalado se llevará a cabo por cada una de las categorías profesionales objeto de convocatoria; en el supuesto de que los puestos de la categoría ofertados no alcancaren el número de veinte, se procederá al ajuste del porcentaje de reserva por el resto del grupo profesional. Las plazas incluidas en el cupo de reserva para personal con discapacidad que no sean cubiertas en el turno de promoción interna se acumularán a las del cupo de reserva para personal con discapacidad del turno libre.

**Octavo.**— Se contempla la aplicación de la Disposición Transitoria Tercera de la Ley de Ordenación Sanitaria de Euskadi a aquel personal que ostentara la condición de personal funcionario interino o contratado administrativo a la fecha de entrada en vigor de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, en los términos por ésta expresados, así como al personal que le fuera de aplicación la Sentencia del Tribunal Supremo 888/2002, de 16 de abril de 2005, es decir, personal cualquiera que fuera su relación de empleo a la entrada en vigor de dicha Ley que se hubiera mantenido en el desempeño del mismo puesto de trabajo sin solución de continuidad hasta la presente convocatoria.

Los puestos desempeñados por aquel personal entre los incluidos en este apartado que no hubieran aprobado la fase de oposición y que, en virtud de la aplicación del régimen establecido para esta modalidad de acceso, debieran cesar en su desempeño según lo previsto en la Disposición Transitoria Tercera de la LOSE, serán ofertados en la relación definitiva de

dira, bai barne-sustapeneko txandakoentzat eta, hala badagokio, baita txanda librekoentzat ere. Lanpostu horiek utziko dira esleipendun egokiak lanpostuez jabetzen direnean, hautaketa-procedurako faseetarik edozeinetan.

**Bederatzigarrena.**— Hautaketa-prozesuak garaitzeko jardueren kudeaketa, oinarri orokorrek eta lehiaketa-oposizioko deialdi bakoitzaren oinarri bereziek ezarritakoaren arabera egingo da.

Osakidetza-Euskal osasun zuzendaritzako Zuzendaritza Nagusiak kudeatu beharko du dagokien hautaketa-prozesuetako deialdia. Kudeaketa-gomendio horren barruan, hautaketa-prozesua arautu behar duten oinarri orokorrak eta deialdien oinarri bereziek prestatu, izapidetu eta ematea daude sartuta, bai eta deialdiko lanpostuak zehaztea, epaimahai kalifikatzailak izendatzea, deialdiak ebazteea eta destinoak esleitzea ere.

**Hamargarrena.**— Oposizio-aldia garatzeko kategoria bakoitzaren oinarri bereziekin bat etorriz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak honako alternatiba hauek ezarri ahal izango ditu: gai-zerrenda edo eskuliburua (gai-zerrenda garatzen duena).

**Hamaikagarrena.**— Oposizio-aldiko probetan, aukeratzeko erantzunak dituzten galdetegiak badau-de, zigortu egingo dira gaizki emandako erantzunak; horretarako, formula hau aplikatuko da: puntuazioa erantzun zuzenen kopuruaren berdina da, ken gaizki erantzundakoen herena. Horretarako, erantzun gabe-ko galderak ez dira errakuntzatzat hartuko.

**Hamabigarrena.**— Deitutako kategorian sartzeko eskatzen den especialista-titulua eskuratzeko titulazio akademikoa arauzko eskakizun berrietara egokitutu eta homologatu beharra duten Erizaintzako langileen parte-hartza errazteko, eskatutako titulazioaren egiaz-tapena destinoa aukeratzeko unean egingo da, betiere hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea aurkezterako unean titulaziorako eskatzen ziren baldintza guztiak betetzen baziren eta homologazio horretarako deialdirik indarrean bada.

Zentzu berean, hizkuntza-eskakizunaren egiaz-tapena (eskakizun hori duten plazetarako) destinoa aukeratzeko unean egingo da. Merezimendu gisa balaratzeko denean, ordea, hautagaiek lehiaketa-aldiko baremazia egiteko agiriak aurkeztekotako unean formalizatutu beharko da beranduenera ere.

destinos a adjudicar, incrementando las plazas correspondientes a la elección de los aspirantes, tanto del turno de promoción interna como, en su caso, del turno libre. El cese efectivo en dichos puestos se realizará en el momento en el que se produzca la toma de posesión por parte de los adjudicatarios correspondientes, en cualquiera de las fases del procedimiento selectivo.

**Noveno.**— La gestión de las actuaciones para el desarrollo de los procesos selectivos se realizará conforme a lo que determinen las bases generales y las específicas de las respectivas convocatorias del concurso oposición.

Se encomienda a la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud la gestión de la convocatoria de los procesos selectivos correspondientes. Dicha encomienda incluirá específicamente la elaboración, tramitación y el dictado de las resoluciones que contengan las bases generales que han de regir el proceso selectivo y las bases específicas de las convocatorias, incluyendo la determinación de los puestos a convocar, la designación de los tribunales calificadores y la resolución de las convocatorias y adjudicación de destinos.

**Décimo.**— Osakidetza-Servicio vasco de salud podrá establecer de acuerdo con lo dispuesto en las bases específicas de cada categoría para el desarrollo de la fase oposición las siguientes alternativas: temario o manual con desarrollo de temario.

**Decimoprimer.**— Se acuerda que cuando las pruebas de la fase oposición consistan en la contestación de un cuestionario de preguntas con respuestas alternativas, la penalización de las respuestas incorrectas se realizará mediante la aplicación de la siguiente fórmula: la puntuación es igual al número de aciertos menos la tercera parte del número de errores. A estos efectos las preguntas no contestadas no tendrán la consideración de error.

**Decimosegundo.**— Con la finalidad de facilitar la participación del personal de Enfermería que requieran de la oportuna adecuación y homologación de su titulación para la obtención del título de especialista exigible para el acceso a la categoría convocada, la acreditación de la tenencia de la titulación exigida se realizará al momento de la elección de destino, siempre y cuando los requisitos precisos para disponer de la misma se cumplan al momento de la presentación de la solicitud para participar en el proceso selectivo y exista convocatoria vigente para la referida homologación.

En el mismo sentido, la acreditación del perfil lingüístico para el caso de plazas con tal requisito se realizará al momento de la elección de destino, si bien para su valoración como mérito deberá formalizarse como máximo al momento de presentar la documentación por los candidatos para la baremación de la fase de concurso.

**Hamahirugarrena.**— Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura finkorik gabe zerbitzuak eskaini dituzten hautagaiei, gaur egun ezin baldin badute kategoria horietako postutarako lehian sartu arautegia aldatu izanagatik kategoria desagertu delako edo orain eskatzen den titulazioa ez daukatelako, bete duten lanpostuan pilatutako antzinatasuna baloratuko zaie, baina lanbide-talde bereko edo beheragoko prozeduratan eta behin bekarrik. Hautagaia berak erabakiko du, titulazio nahikoa duen zein prozeduretan nahi duen antzinatasuna baloratzea. % 75eko portzentajearen araberako balorazioa emango zaio. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak ofizioz egingo du zerbitzulotura, baldin eta hautaketa-prozesu honetan hautagaiek kategoria bakar batean parte hartzen badute.

**Hamalaugarrena.**— Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Erizaintzako Laguntzaile kategoriako erizaintzako laguntzaile plaza daukaten langileek, 1984ko ekainaren 14ko Agindua indarrean jarri zenean osasun-arloko teknikari espezialista lanetan jardun baziren, eskabideak aurkezteko azken egunean dagokien espezialitateko Osasun arloko Teknikari Espezialista titulazioa baldin badaukate, eta plaza lortzen badute, gaur egun betetzen ari diren plaza eta destinoan jarraitu eta lanbide-kategoria berria finkatzeko aukera daukate.

Era berean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Erizaintza kategorian langile finko izendatutako langileek dauden plazan eta destinoan jarraitu ahal izango dute, lanbide-kategoria berria finkatuz. Horretarako, Osasun Mentaleko Erizain kategoriarako deialdia eginen denean, Osasun Mentaleko Erizaintza espezialistaren titulazioa izan beharko dute eta Osasun Mentaleko plazan ari badira.

**Hamabosgarrena.**— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina erabaki honek.

Bere aurka administrazioarekiko auzi-errekursoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 9a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko lehendakaria,  
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.

**Decimotercero.**— Los candidatos que hayan prestado servicios con una vinculación no fija en Osakidetza-Servicio vasco de salud en puestos de categorías a las que no puedan optar en la actualidad por desaparición de la categoría, por modificación normativa o por no poseer la titulación exigida de forma sobrevenida, dispondrán de la posibilidad de que se les valore el mérito de la antigüedad en el puesto efectivamente desempeñado para el procedimiento de acceso a una única categoría del mismo grupo profesional o del inferior, a elección expresa del candidato, para la que dispongan de titulación suficiente, computando la misma en un porcentaje del 75%. La vinculación de servicios se hará de oficio por Osakidetza-Servicio vasco de salud cuando los candidatos participen en una única categoría en el presente proceso selectivo.

**Decimocuarto.**— El personal Auxiliar de Enfermería con plaza en propiedad en la categoría de Auxiliar de Enfermería en Osakidetza-Servicio vasco de salud, que viniera desempeñando funciones de Técnico Especialista Sanitario a la entrada en vigor de la Orden de 14 de junio de 1984 y que el último día del plazo para la presentación de solicitudes se encuentre en posesión del título de Técnico Especialista Sanitario de la especialidad correspondiente, que obtuviera plaza de Técnico Especialista, podrá optar por mantenerse en la plaza y destino actual consolidando la nueva categoría profesional.

Así mismo, el personal con nombramiento como personal fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud en la categoría de Enfermera/o, que a la fecha de la convocatoria de la categoría Enfermera/o de Salud Mental se encuentre en posesión de la titulación de Enfermera/o especialista en Salud Mental y ocupando plaza de Salud Mental, si obtuvieran plaza de Enfermera/o de Salud Mental, podrán optar por mantenerse en la plaza y destino actual consolidando la nueva categoría profesional.

**Decimoquinto.**— El presente Acuerdo surtirá efectos desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra el mismo podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de mayo de 2011.

Presidente del Consejo de Administración  
de Osakidetza-Servicio vasco de salud,  
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.